



Nafar doinu ausartak. - Piano eta saxo doinuek eman zioten hasiera atzo IV. Musika Asteari. Ana B. Garcia pianoan eta Josetxo Goi-Arriben saxoan Eunate XXI emanaldia eskaini zuten Manuel Lekuona Kultur etxeko aretoan. Pirinioetako sartaldean mendez mendeko eta ahoz aho transmititu diren hainbat doinu moldatuz gozatu zuten entzuleek. Melodia atonalek, armonia jokoek, etab. abesti tradizional horiei gaur egungo musika mugimenduen kutsua eman eta entzuleen harridura sortu zuten. Kontzertu amaieran ederki eskertu zuten musikari bikotearen lana. Esan bezala, musika astea hasi besterik ez da egin. Gaur 20:00etatik aurrera, 'X una causa justa' diskaren doinuez osatutako kontzertua eskainiko du Serafin Zubiri abeslari nafarrak. Bihar, berriz, Sasibil elkarte lirikoaren eskutik 'Portuko tabernaria' zarzuelaz gozatu ahalko dute Manuel Lekuonara hurbiltzen direnak. Asteari amaiera emateko, igandean, 12:30etik aurrera, 'Plazandere' emanaldia eskainiko du Amaren Alabak taldeak. Zuberoako poeten hitzak eta bertako doinuek ekarriko dituzte. Emanaldi hau doakoa izango da, baina gaur eta biharko saioetarako sarrera behar da.

3 SAN PEDRO JAIK Jaietako irudia bilatzeko lehiaketa ireki du Udalak

San Pedro Jaiak iragarriko dituen kartelaren lehiaketako oinarriak jakitera eman ditu Udalak. Formatu digitalean edo fisikoan aurkeztu daitezke proposamenak. Apirilaren 29ra arte aurkeztu ahalko dira lanak. Udalaren webgunean izango dira ikusgai herritarren iritzia jasotzeko. Gazteria eta Jaiak batzordeak izango du azken hitza.

4 KULTURA Haur eta Helduen Literatura Lehiaketak martxan

Lasarte-Oriako Kultura sailak Lasarte-Oriako Literaturako XXX. Lehiaketa eta Haurrentzako 29. Literatura Lehiaketa aurkeztu ditu. Haur eta gazteen mailan ipuinak eta poesiak eta helduenean mikrokontakizunak edo poesiak izango dira epaituak. Idazlanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 13a da.



5 KULTURA Earra! bertso eskolak urteurren berezia ospatuko du

Apirilaren 21etik 24ra, Lasarte-Oriako bertso eskolak bere 25. urteurrena ospatuko du. Egun bakoitzean ekintza bana izango da. Bertsozaleek Andoni Egañaren solasaldiaz, Lasarte-Oria eta Gabiriren arteko bertso desafioaz eta 'Ez da kasualitatea' saioaz gozatu ahalko dute. Honetaz gain, eskolako kide eta kide ohien bazkaria ere izango da.

Josue Igeltseritza
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL
606 37 21 05
josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra
Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Bidaiak Taldean
Irteera Lasarte-Oriatik

2016

- Errusia
- Kruzeroa Greziako irletara
- Islandia
- Gabonetako azokak

2017

- Argentina
- Kruzeroa Baltikoko Hiriburuetara
- Mendebaldeko kosta (USA)
- Polonia
- New York
- Gabonetako azokak

*Irteera guztiak talde osaketari lotuak

NOAIA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10 - Lasarte Oria
T 934 373 613 | info@noaibidaiak.com

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

38-60 neurriak

Zorion agurrak

Jaiotzak Heriotzak



Amaiur

ZORIONAK gure etxeko pirarentzat!! Bihotza egun zoragarria pasa dezazun opa dizugu, etxekoekin eta zure lagunekin. Ekaitz, aitaxo eta amatxo!



Maialen

Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean! Ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



Enara

Zorionak politta, jarraitu orain arte bezala gure bizitzak alaitzen. Zortzi muxu guztiaren partetik.



Oier

Zorionak pottoko zure seigarren urtebetetzean, txokolatezko muxuak, famili guztia- ren partetik, muak, muak!!!



Nahia

Zorionak printzesa! Ondo pasa zure urtebetetzean, 10 muxu txokolatezko. Maialen, aita, ama eta aiton-amonen partetik.



Irati

Zorionak printzesa, eskerrik asko 8 urte zoragarri hauek emateagatik. Mila muxu aita, ama eta Leire.



Artai

Zortzi urte potolo betetzeagatik, gure pottokoarentzat muxu pila.



Unai

Zorionak txapeldun! Ondo pasa zure bederatzigarren urtebetetzean. Muxu asko familiaren partez.



Aroa

Zorionak politta, dagoeneko 6 urte! Muxu pila bat familiaren partez.



Vera

Zorionak Vera!!! Izeba eta Kloeren partetik. Muxu asko.



Kloe

Zorionak printzesa bi urte ia!! Muxu pottolo familiaren partetik.



Malen

Zorionaaaak printzesa....8 muxu pottolo eta ondo pasa zure egunean.



Uxue

Zorionak "bitxito", 6 muxu handi familiaren partetik.



Sara

8 muxu handi etxeko printzesarentzat familia osoaren partetik.



Iraia

Zorionak printzesa!! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. 9 muxu pottolo pottolo Leire, amatxo eta aitaxoren partetik.

Jaiotzak



- Jon Ander Iglesias Iñigo, martxoaren 28an.
- Aizpea Cuadrado Garcia, martxoaren 27an.
- Adrian Rosa Garcia, martxoaren 25ean.
- Manex San Sebastian Pikabea, martxoaren 23an.
- Telmo Feliz Arcos, martxoaren 22an.
- Iزارo Ruiz de Garibay Holgado, martxoaren 16an.
- David Novo Maksymyuk, martxoaren 11an.

Heriotzak



- Emiliana Salas Gomez, apirilaren 7an, 82 urte zituela.
- Carmen Duran Pineda, martxoaren 30ean, 71 urte zituela.
- Juan Jimenez Duran, martxoaren 30ean, 75 urte zituela.
- Rosario Galan Murias, martxoaren 29an, 104 urte zituela.
- Ascension Garcia Garcia, martxoaren 26an, 92 urte zituela.
- Iñaki Romo Zubillaga, martxoaren 25an, 69 urte zituela.
- Angel Lapresta Garces, martxoaren 24an, 80 urte zituela.
- Iñaki Orotegi Gorostegi, martxoaren 23an, 82 urte zituela.
- Juan Kortajarena Garmendia, martxoaren 22an, 59 urte zituela.
- Maria Estanga Echarri, martxoaren 20an, 81 urte zituela.
- Natalia Gonzalez Caño, martxoaren 17an, 101 urte zituela.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Garaje itxia salgai Zumaburun. Plaza bat eta erdikoa da: 22,275 metro karratu ditu. 688 823 387
- Cascante (Nafarroa) 2000 metro karratuko nekazal eremuko lur saila. 80 olibondo, 19 fruitu-zuhaitz eta belar zelai itxia du. 93 metro karratuko etxebizitza. Informazio gehiago, 655 738 167.

Salerosketa

- Motxila handi bat, bi lo-zaku eta esterilla bat salgai, egoera onean. Salneurria: 40 euro. 943 36 00 42/688 65 91 65.
- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 370 092
- Psikologiako lehenengo mailako liburuak salduko nituzke. 943 363 371.

Lan-eskaintza

- Arrandegian lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientziaduna. 943 368 834.

Lan-eskaria

- Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 634 27 81 98.
- Externa edo interna moduan lan egiteko pertsona eskaintzen da, baita haurrak zaintzeko ere. 612 550 134.
- Etxeko lanak egiteko pertsona bat eskaintzen da: portalen garbiketa, adineko pertsonak zaintzea, etab. 647 198 629.
- Emakume bat eskaintzen da externa moduan lan egiteko, adineko pertsonak zaintzeko edota etxe zein portalak garbitzeko. 680 414 963.
- Emakumea eritetxean gauak pasa, nagusiak-haurrak zaindu edota garbiketa lanetan aritzeko prest, orduka edo interna. Erreferentzia onak 619 803 199.
- Esperientzia handiko geriatría laguntzailea eskaintzen da adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko, baita beste zenbait lanetarako ere. Carlos. 680 983 527.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta haur edo pertsona adinduen zaintza lanetarako. Interna edo externa moduan. 685 520 590.
- Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest egongo nintzateke. 38 urteko emakumea naiz. Egun osoan aritu naiteke eta esperientzia dut. 673 339 665.

Bestelakoak

- Alokairuan pisua bilatzen dut Lasarte-Orian. 2 logelakoa eta hilean 550 eta 600 euro artekoa. 673 381 470
- Arazo ekonomikoak dituzten familietan eskola indartzeko klaseak ematen ditut. Ingeñaria naiz eta dohainik egiten dut. 676 145 135
- 8 urteko ume batentzat bateria bat erosi nahi da. Interesdunak, 943 362 614.
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 9	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 10	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 11	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 12	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 13	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 14	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martín Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SAN PEDRO JAIK



2015 urteko San Pedro Jaiak antolatzen lagundu zuten elkarteetako batzuk jaietako kartel iragarlea eskutan dutela.

Jaietako kartel lehiaketa martxan da

Apirilaren 29ra arte aurkeztu daitezke lanak

Bi hilabete besterik ez dira geratzen Lasarte-Oriako San Pedro jaietako txupinek herriko erritmoa aldatu eta kaleetan jai giroa nagusi izateko. Lasarte-Oriako Udala lanean da ekaineko egitaraua osatzen, baina San Pedro Jaietako irudia ere erabaki behar du. Hori dela eta, 2016 urteko jaiak iragarriko dituen kartelaren lehiaketako oinarriak jakitera eman ditu.

TXINTXARRI

San Pedro jaietako egitarauko ekintzak, Sorgin Dantzako txapela edo blusak izan dira aurreko urteetan Lasarte-Oriako jaietako irudi. Lan hauek lehiaketa bitartez aukeratuak izan ziren. Ekintzak duen harrera ona ikusita, aurreko urteetan Lasarte-Oriako Udalak San Pedro Jaiak iragartzeko kartelaren diseinuaren lehiaketa egitea erabaki du eta honen oinarriak eman ditu jakitera.

Lehiaketan nahi duen edonork parte hartu ahalko du eta pertsona bakoitzak egoki deritzon adina proposamen aurkeztu ahalko ditu.

Proposamenak jatorrizkoak izan behar dira, eta beste edozein lehiaketatan saritu gabeak.

Baldin eta kartel guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza intelektuala egilearen esku ez bada, kartela ezingo da aurkeztu.

Kartel guztiek goiburu hau eraman behar dute inprimatua: 'San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2016'.

Kartela lantzeko teknika erabat librea da eta formatu digitalean nahiz formatu fisikoan aurkeztu ahalko dira.

Aurkezpena

Kartela formatu digitalean aurkeztu bada, JPG formatuan, 50x70 cm-ko tamainan eta 300 pixel hazbetekoa izan behar du. Artxioboaren izena obraren izenburutzat joko da.

Lanak posta elektronikoz bidaliko dira sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu helbidera.

Mezuan atxikita testuzko dokumentu bat bidaliko da, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.

Kartela formatu fisikoan aurkeztu bada, kartelak 50x70 cm-ko tamaina izan beharko du. Kartelaren izenburuak haren atzealdean egon beharko du idatzia.

Kartelari gutun-azal itxi bat atxikiko zaio, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.

Lanak Gaztelekuan dagoen Gazteen Informaziorako Bulegoan aurkeztuko dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 21:30era eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Oinarrietan azpimarratzen den moduan, kartelaren izenburuak ezin du egilearen izena izan.

Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 29an amaituko da.

Herritarren iritzia

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak Lasarte-Oriako Udalaren webgunean, www.lasarteoriasarean.eu ikusgai jarriko dira.

Honetan izenburuaren bidez identifikatu ahalko dira, ez da sinadurarik agertuko.

Oinarrietan jakinarazten denez, lehiaketa honetara aurkeztearekin egileek espresuki haien lana webgunean erakusteko baimena ematen dute.

Era honetara, herritarrek ikusgai jarriko diren kartelei buruz duten iritzia adierazi ahalko dute.

Iritzi hori Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak Batzordeak aintzat hartuko du kartel irabazlea hautatzerakoan eta haren erabakia apelaezina izango da.

Saria eta eskubideak

Irabazleak sari bakarra jasoko du, 600 eurokoa. Sari honi indarrean dagoen legediaren arabera PFEZa aplikatuko zaio.

Kartel irabazlearen egileak Lasarte-Oriako Udalarik kartel hori egoki deritzen modu eta medio guztien bidez eta nahi adina aldiz erreproduzitzeko eskubidea emango dio.

Modu berean, Lasarte-Oriako udalak ere bere gain hartzen du egileari kartelean aldaketak egiteko eskatzeko eskubidea (dagozkion logoak gehitu, festetan joko duten taldeen izenak gehitu, etab.), betiere lanaren esentzia errespetatuz.

Eta azpimarratzen denez, lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak onartzea.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Ikaskuntzarako bitartekaritza zerbitzua erabilgarri

Buruntzaldea eskualdean ikaskuntzarako bitartekaritza zerbitzu bat erabiltzeko interesa dutenek, Usurbilgo Lanbide eskolan dute aukera. Gai horri lotutako hainbat alorren inguruan orientazioa eta aholkularitza jasoko dute erabiltzaileek.

Helburua "etengabeko prestakuntza EAEko hiritarrentzat sustatzea eta bultzatzea" dela azpimarratu dute antolatzaileek.

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikaskuntza bitartekaria Olatz Lazkano Portu da. Hainbat bide daude harekin harremanetan jartzeko: bitartekaritza-mediacion@lhusurbil.eus helbide elektronikora idatzi daiteke, 943 36 46 00 telefonora deitu edo bestela eskolara bertara joan -Etarate Bidea 9, Bº de Zubieta, Usurbil da helbidea-.

JANARI BILKETA

Herriko 109 familiek 5.852 kilo janari jaso dituzte

Kalteberatasun egoeran dauden familiei zuzendutako bigarren janari banaketa burutu zuten Udalak eta Gurutze Gorriko boluntario talde batek, martxoaren 14tik 18ra bitartean. Denera 5.852 kilo janari jaso zituzten herriko 109 familiek. Hirugarrena maiztzean egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Bi adin-tarteko pertsonak jaso zituzten elikagaiak. Bi urte baino gutxiagoko haurrentzat zerealak, esne-hautsa eta pure-potoak eman zizkieten familiei. Adin horretatik gorakoentzat beste hainbat banatu zituzten: oliba-olioa, lekaleak, arroz zuria, atun- eta fruta-kontserbak, barazki-purea, gailetak, pasta, esne osoa eta kontserbako tomate frijitua.

Maiatzeko janari-banaketako onuradun izan nahi duten familiek Udaletxeko erregistrora jo beharko dute, eta eskaera egin, horretarako prestatutako orri orokorra betez.

TAILERRA

Erorketak saihesteko tailerra apirilaren 13an

Erorketak eta horiek izan ditzaketen ondorioak saihesteko helburuz, tailer bat antolatu dute Udaleko Gizarte eta Kirol Batzordeak, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin elkarlanean, apirilaren 13rako. 64 urtetik gorako pertsona eta euren familia zein zaintzaileei dago zuzendua; Biyak Bat elkartearen egingo dute ikastaro teoriko-praktikoa, 18:00etatik 20:00etara. Elkarlearen egoitzan bertan eman beharko dute izena interesa dutenek. Mugatuak dira ikastaroko plazak.

Landuko dituzten gaien artean honakoak topa daitezke: erorketekin zerikusia duten etxe barruko zein kanpoko arriskuak, jardura fisikoaren onurak osasunean, udalerriko baliabideak eta nola zutitu erorketa baten ostean, besteak beste.

BIYAK BAT

Baztanera txangoa

Biyak Bat jubilatuen etxeak Baztanera txangoa antolatu du hilaren 28an. Goizeko 8:30ean aterako dira eta Aniz, Arizkun eta Irurita herriak bisitatuko dituzte. Nekazaritza-ustiategi batean eta Arkupe txokolategian egongo dira, besteak beste.

Ordoki jatetxean bazkalduko dute. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta kide ez direnek 45 euro. Apirilaren 7ra arte eman ahal izango da izena jubilatuen etxe-ko bulegoetan, 10:30etatik 12:30etara.

IKASTAROAK

KZGuneko apirileko eta maiatzeko ikastaroak

Apirila eta maiatzeko KZGunean egingo dituzten ikastaroak jakitera eman dituzte. Oinarriko internet, ofimatika, sare sozialak, irudia eta Google Apps eskainiko dituzte. Etxetik ikasteko aukera ere emango dute. Zehazki, GIMP, lan bilaketa, Wordpress eta LinkedIn jorratuko dituzte.

Ordutegiak anitzak dira, eta interesatuek informazio gehiago eska dezakete Jaizkibel plazako lokalean astelehene ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, tutor.lasarte@kzgunea.net posta elektronikokoan ere galde daitezke edozein zalantza, baita 943 023 660 telefonoan ere.

IRAKURLE TXOKOA

Hurrengo saioak eta 'Amalur' ikuskizunerako sarrerak

Irakurle Txoko lagunek martxoaren 22an zuten hitzordua bertan behera geratu zen. Txokoko kideek aurreratu digutenez, saioa ekainean egingo da, baina oraindik data zehazteke dago.

Bestalde, hurrengo saioa apirilaren 19an izango da. Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak idatzitako eta Xabier Alegriak eta Gerardo Markuletak euskaratutako bi lan aztertuko dituzte, Ispiluak eta Hitz Ibiltariak. Hitzordua beti bezala, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean izango da.

Baina aurretik, zehazki apirilaren 16an, beste egitasmo bat dago Irakurle Txokoarekin lotua. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Amalur' ikuskizuna eskainiko dute Lasarte-Orian. Irakurle Txokoari laguntzeko asmoz emanaldiko bi saio antolatu dituzte herriko pailazoek, 16:30ean eta 19:00etan. Lehengo saiorako sarrerak agortu dira jada, baina bigarrenarako sarrerak daude oraindik.

MERKATARITZA

Enpresa-sortzaileentzako ikastaroa

Gertu aholkularitza-enpresak prestakuntza-ikastaro berri bat antolatu du, "zure negozioa sortzeko eta kudeatzeko".

Ikastaroa apirilaren 26tik 28ra emango da, Donostiako Urdaneta Kaleko 18 zenbakiko etxabeetan eta dohainik da. Ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da, baina antolatzaileek jakitera eman dute behar izanez gero, bigarren txanda bat egiteko aukera dagoela 15:30etik 17:30era.

Gertu aholkularitza-enpresa Lanbiden enpresa-sortzaileei aholkularitza ematen dien enpresa bat da. Lasarte-Orian asteazkenetan egoten da eta haiekin biltzeko, hitzordua aurrez eskatu behar da.

Ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago nahi izanez gero, gertu@gertuasesores.com helbidera mezu bat bidali edo 943 42 45 98 telefono zenbakian eta Gertu asesores edo Lanbideren webgunetan eskuratu daiteke.

ALBOKA ABESBATZA

Logroñon emanaldia larunbatean

Alboka Abesbatzak Errioxa aldera bidaiatuko du asteburu honetan eta zehazki, Logroño hiriburuko Sagasta Institutuan kontzertua eskainiko du larunbata arratsaldean, 20:00etatik aurrera.

Lasarte-Oriako abesbatzak eskainiko duen egitarauan musika estilo ezberdinak izango dira entzungai. Sagasta Institutuko aretoko entzuleek doinu sakroez, euskal doinuez, polifonia edo nazioarteko fokloreko kantez gozatu ahaliko dute Alboka abesbatzako kideen ahotsetan.

Kontzertua Lasarte-Oriako abesbatzaren eta Logroñoeko Orfeoiaren hartu-emanaren fruitu da.

Abesbatzak jakinarazi digunez, kontzertuaz gain, hainbat ekintza dituzte aurreikusiak asteburuan, hala nola, Logroño hiriburua, Biasteri eta ardo upeltegi bat bisitatuko ditu taldeak. Abesbatzako bazkide eta lagunen babesa ere izango dute bidai honetan.

UDALA

Ibilgailuen zerga

Lasarte-Oriako Zerga-bilketa arloak gogorarazten du, 2016. urteko Trakzio mekanikoko ibilgailuen Zerga ordaintzeko borondatezko epea apirilaren 15ean amaitzen dela.

Helbideratutako agiriak borondatezko epearen azken egunean, hau da, 2016ko apirilaren 15ean kargatuko dira zergadun bakoitzak zehazturiko kontu korrantean.

Helbideratu gabeko agiriak Banku eta Aurrezki kutxetan edo Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean www.lasarte-oria.org ordaindu ahal izango dira. Azken aukera horren alde egiten duenak Udaleko administrazioa orrialdeko zerbitzu telematikoen barruan dagoen 'nire ordainketa online' atala erabili behar du.

Ordain-gutuna jaso ez duenak, edota beste aleren baten beharra duenak, Udaletxeko hirugarren solairuan kokaturiko Zerga-bilketa bulegora jo dezake, edo 943 376 187 telefono zenbakira deitu, argibideren bat behar izanez gero.

Era berean, borondatezko epearen azken egunetik aurrera, ordaindu gabeko agiriak dagokion errekararekin, premiamenduzko prozeduraren bitartez eskatuko direla jakinarazten da.

Onetsi dira literatur lehiaketako oinarriak

Idazlanak maiatzaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dira



lazko edizioako saritu, antolatzaile eta udal ordezkariak argazkia atera zuten sari-banaketa ekitaldian.

Lasarte-Oriako idazle gazte eta helduak herriko lehiaketan aurkeztu ahal izango dira aurten ere. Maiatzaren 13ko 13:00ak bitartean Manuel Lekuona kultur etxeko bulegoetara eraman ahal izango dituzte euren idazlanak. Gaztetxoek euskarazko eta gaztelaniazko ipuinak idatziko dituzte, eta helduek, poesia eta mikrokontakizunak, bi hizkuntzatan.

TXINTXARRI

Haurrentzako Literatura Lehiaketa 29. aldiz egingo da aurten. Euskaraz zein gaztelaraz aurkeztu ahaliko dituzte lanak gaztetxoek; nahi dutenari buruz idatzi ahaliko dute, gaia librea baita.

Adinaren arabera hiru kategoria bereizi dituzte antolatzaileek: 2007. urtean edo geroago jaio direnek A delakoa osatuko dute; 2004 eta 2006 artean jaio ziren neska-mutilak Bn egongo dira, eta 2001etik 2003ra bitartean jaiotakoak Cn. A eta B kategorietako gaztetxoek ipuin sailean aurkeztuko dituzte lanak; Ckoek aukera bat baino gehiago edukiko dute: ipuinak edo poemak.

Ipuinek hiru orrikoak izan beharko dute, gutxienez. Poemek, berriz, 60 bertso-lerrokoak.

Ipuinen kategoriarako hiru sari ezarri dituzte antolatzaileek: 1goak 150 euro irabaziko ditu -75 dirutan eta beste 75 liburuentzako bonu gisa-; 2.ak 112 -56 eta 56-, eta 76 -38 eta 38- hirugarrenak. Poemenerako, bakarra: 1go saridunak 150 euro poltsikoratuko ditu; erdiak dirutan eta beste erdiak liburuak erosteko bonu gisa.

Helduen 30. edizioa

Haurren lehiaketarekin

batera, helduen 30. edizioaren oinarriak finkatu dituzte antolatzaileek.

Lanak euskaraz zein gaztelaraz aurkeztu ahaliko dituzte parte hartzaileek; gaia librea izango da haien artean. Dena den, baldintza pare bat gehiago ere bete beharko dituzte: argitaratu gabeak eta originalak izan beharko dute idazlanek, eta beste lehiaketaren batera aurkeztu gabeak.

Poesia eta mikrokontakizunak dira helduen lehiaketako bi modalitateak. Poesien metrika eta luzera librea izango da; mikrokontakizunak, 1.500 karakterekoak, gehien jota.

Sariak espezialitateka banatu dituzte antolatzaileek. Poesiak idazten dituztenek honako sariak irabazi ahaliko dituzte: euskaraz idatziak izan badira, 650 euro eta diploma -1go saria egongo da soilik-; kopuru bera patrikarako du gaztelarazko 1go saria irabazten duenak. Mikrokontakizunen espezialitatekoek, euskaraz zein gaztelaniaz, 325 euro eta diploma irabaziko dituzte -1go sariak daude soilik-.

Haurrenean ez bezala, helduen kategorian 'Lasarte-Oria' sariak ere badaude: herrian erroldatutako idazleek irabazi ahaliko dituzte horiek.

Bi espezialitateko bakoitzean emango dute sari hori

antolatzaileek, euskaraz zein gaztelaniaz.

Diru kopurua arestian aipatutakoen berbera izango da: 650 poesien kasuan, eta 325 mikrokontakizunenean.

Sariak, azaroaren 19an

Lehiaketetara aurkeztutako lanak Kultura Batzordeak izendatutako epaimahai batek aztertuko ditu.

Epaimahaia urrian bilduko da, eta hilabete horretan emango du epaia.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta www.lasarteoriasarean.eu webgunean argitaratuta emango da ezagutzera. Sari-dunei, berriz, zuzenean jakinaraziko zaie.

Sarien banaketa ekitaldia, aldiz, azaroaren 19an egingo dute Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Harrobia lantzen

lazko edizioan haur eta gazteen lehiaketak herrian literatura zaletasuna dagoela nabarmendu zuten lan kopuruak nabarmen gora egin baituzten.

Guztira, 2014an baino 50 idazlan gehiago aurkeztu zituzten: euskarazko 24 eta gaztelaniazko 26.

Era berean, euskal ipuingintzak harrobia izan zezakeela ikusi zen. Gaztetxoek C kategorian 81 ipuinek hartu baituzten parte euskarazko lehiaketan. 2014 urtean soilik 28 izan ziren.

Helduen atalean gainera, Lasarte-Oria sari bat eskaini zuen epaimahaiak. Mikrokontakizunen ataleko B kategorian izan zen. Saridunak, Idoia Garzes herritarra, 'Notak airean' lana aurkeztu zuen.

Earra! bertso eskolak, zilarrezko ezteia

Egañarekin solasaldia, bertso desafioa, bazkaria eta 'Ez da kasualitatea' saioa izango dira

Lasarte-Oriako Earra! Bertso eskolak duela 25 urte eman zituen bere lehen pausoak. Hau ospatzeko apirilaren 21etik 24ra egitarau antolatu du. Hauen artean, apirilaren 23an, eskolako kide eta kide ohiak batuko dituen bazkaria antolatu da Xirimiri elkartearen.

TXINTXARRI

Bertso tertuliak, bertso saioak, desafioak, Bertsolari txapelketetako saioen emanaldia, haurren bertso eskola, bertso paper lehiaketa... 25 urtetan hamai-ka izan dira Lasarte-Oriako Earra! bertso eskolak. Ttakun kultur elkartearen laguntzaz antolatutako ekintzak.

Herriko beste erakunde eta elkarteekin elkarlanaren bitartez, gure herrian bertsolaritza sustatu eta gazte zein helduen artean zaletasuna sortzen dihardu.

Horregatik, bertso eskolak bere zilarrezko ezteiak betetzen dituen honetan lau egunetako egitarau antolatu du zaletu, herritar eta bertso eskolako kide ohiekin ospatzeko.

Egitaraua apirilaren 21ean, ostegunean hasi eta apirilaren 24an, igandean amaituko da.

Ekintza guztiak, bazkaria izan ezik, irekiak eta doakoak dira.

Egañarekin solasean

Ospakizunekin hasteko Andoni Egañarekin tertulia izango da Xirimiri elkartearen, 19:30ean.

Andoni Egañari bertsolari-tzari buruzko galderak egin ahalko diote hurbiltzen diren herritarrek.

Bertso desafioa

Ostiralean, apirilaren 22an, 'Bertsotruk' bertso eskolen arteko desafioa izango da Jalgin Kafe antzokian 22:30etik aurrera.

Helduen bertso eskolen arteko harremanak sustatu asmoz antolatu da 'Bertsotruk' egitasmoa.

Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak abian jarri zuen 2015 urteko azaroan eta aurtengo maiatzean amaituko da. 26 bertso



Mailu Arruti eta Unai Muñoa gai jartzaille zirela, Arrieskalletan eskolako bi belaunaldi izan ziren aurrez aurre, Ane Labaka eta Patxi Etxeberria.

eskola ari dira partehartzen, 9 multzotan banatuta. Lasarte-Oriari Gabiri eta Agurain egokitu zitzaizkion.

Otsailaren 26an herritar-rrak Gabirin izan ziren eta orain, buelta egingo dute.

Patxi Etxeberria, Unai Muñoa eta Ane Labaka izango dira Lasarte-Oriaren ize-
nean lanean. Gabiriko ordezkariak berriz, Eusebio Igarzabal, Endika Igarzabal eta Aratz Igarzabal dira.

Bazkaria

Bertso eskolako ikasle eta ikasle ohiek hitzordu polita dute apirilak 23an, Xirimiri elkartearen.

Bertan guztiak batu eta bazkari eder baten inguruan oroitzen elkarbanatzeko aukera izango dute.

Bertso eskolako kideek aditzera eman digutenez, bertso eskolako ikasle izan eta bazkarian parte hartu nahi duten herritarrek izena eman behar dute.

Horretarako, datorren asteko ostirala baino lehen (apirilak 15) deitu behar dute honako telefono zenbakira, 609 413 766.

Emakumeen errebindikazioa

Eta ospakizunekin amaitzeko, apirilaren 24an, igandez, 'Ez da kasualitatea' bertso-saioa musikatuaz gozatzeko aukera izango da.

Furia Beltza tabernan izango da hitzordua arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Umorea, jolasa, gogoeta, emakumeon arteko konplizitate, musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa da.

Horretan Oihana Iguaran, Miren Amuritz, Alaia Martin

eta Ane Labaka herritarra izango dira kantari. Gai jartzaille lanetan Amaia Agirre ariko da.

Bertsolariak eta gai jartzaille emakumeak izatea ez da kasualitatea. Izan ere, ohi-koak baitira gizonezkoen osatutako saioak, baina emakumeak protagonistak direnak, berriz, gutxi batzuk dira.

Egoera hau azalatu eta emakumez osatutako emanaldiak ere kasualitatez antolatzen joan daitezela ohitura bihurtzeko asmoz 2009 urtean martxan jarri zen egitasmoa.

Geroztik asko izan dira saio ezberdinetan parte hartu duten emakumezko bertsolari eta gai jartzailleak.

Bertsolarien kantuak girotzen eta laguntzen Ixak Arruti gitarra jolea eta Eneko Sierra saxojolea izango dira.

Earra! bertso eskolak bertsozale eta herritarrei ekitaldietan parte hartzeko gonbita egiten die.

Eta, aipatu legez, bertso eskolako kide ohiei bereziki larunbatean izango den bazkarian parte hartzeko deialdia egiten die.



1992. urteko irudian, bertso eskolako partaideak Xanti Zabala irakaslearekin, zutik.



Beñat Intxausti, Leire Olaberria

Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15
euro

Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

eus

+34 943 085 051

info@domeinuak.eus

www.domeinuak.eus

LABURRAK.-

Buruntzazpiko txirrindulari junior Luken Carbayeda bikain Gipuzkoako selekzioarekin

Buruntzazpi taldeko juniorrak denboraldi aparta egiten ari dira aurten, Gipuzkoako selekzioko hautatzaileen arreta deitzen. Luken Carbayeda taldeko kidea Valladolidera joateko deialdian sartu zuten; bertan aritu zen herritarra pasa den asteburuan, Federazio txapelketako lasterketan pedalei eragiten. Txirrindulari gipuzkoarrak primeran aritu ziren eta taldekako sailkapeneko lehenengoak izan ziren.



Iñigo Ibarburuk marka pertsonal bat ondu zuen Espainiako Udaberriko Open txapelketan

Sabadellen (Herrialde Katalanak) lehiatuta eman zion amaiera neguko sasoiari Buruntzaldea IKTko igerilari Iñigo Ibarburuk. Espainiako Udaberriko Open txapelketan hartu zuen parte Aste Santuko oporraldia baino lehen.

Jokatu zituen lau probetatik batean, gutxienez, marka pertsonala onteza zuen buruan. Helburu hori ezarri zion bere buruari Iñigo Ibarburuk. Lehenengo konpetizio egunean beteta zuen jada: bi minutu, zortzi segundo eta 62 ehunekotan geratu zuen erlojua, 200 tximeleta proban. Distantzia horretako taldeko absolutu mailako errekorra ere birrindu zuen Ibarburuk.

BTTko parte hartzaileek bihar arratsaldean jaso behar dituzte dortsalak, Antonio Mercero gunean

Gero eta gutxiago falta da Lasarte-Oriako VI. BTT trabesiarako. Igandean aterako dira hainbat txirrindulari Okendo plazatik, 9:30ean. Proba jokatu ahal izateko noski, ezinbestekoa da norberak bere dortsala edukitzea. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, Antonio Mercero gunean –Okendo plazaren alboan dago– jaso beharko dituzte dortsalak parte hartzaileek, bihar arratsaldean zehar, 18:00etatik 20:30era, eta ez Michelinen, TXINTXARRI-k asteleheneko alean argitaratu bezala.

Babyauto Zarautzek bihar amaituko du liga erregularra, La Unica RTren aurka jokatuta

Garaipenak pilotzen segitzen du Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldeak. Bere multzoko txapelduna da jada; bihar amaituko du liga, Zarautzko Asti zelaian, La Unica RT nafarren aurka, 17:00etan. Pasa den asteburuan 21-29 hartu zuten mendean Blusens RC talde galiziarra. Hasieratik aritu ziren Xabier eta Ander Rekondo anaiak. Fran Puertasen taldea galtzen joan zen atsedenaldira, 21-12, baina buelta eman zion egoerari gero.

SASKIBALOA.-

Euskal Ligan jarraituko dute

Ligaxka amaitzeko jardunaldi baten faltan, Ostadar SKTko junior neskek kategoria mantentzea lortu dute, matematikoki

Lanak garaiz egiten has-teak, askotan, saria dakar. Ostadarreko junior neskek lortu dute eurena, ligaxka amaitzeko jardunaldi baten faltan: 16/17 denboraldian Euskal Ligan ariko dira berriro ere. Ordiziari irabaztea eta Getxok galtzea ziren horretarako baldintzak. Biak beteta, errealitate bihurtu da ametsa.



Ordiziari irabazita, Euskal Ligan segitzeko txartela poltsikoan dauka jada Ostadarrek.

TXINTXARRI

Hasiera batean utopia zena helburu bihurtu zen, zenbait jardunaldiren ostean. Orain, errealitate: Euskal Ligan lehiatuko dira datorren sasoiaren Ostadarreko junior neskek. Kategoria mantentzeko ligaxka ari dira jokatzeko, eta amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean, maila horretan konpetitzen jarraitzeko txartela poltsikoan dute, matematikoki.

Baldintza pare baten pean zegoen ligaxkako azken jardunaldira lanak eginda iristeko aukera: batetik, Ordizia garaitu behar zuten urdin-beltzek; bestetik, Getxok galdu egin behar zuten San Viator liderraren kontra. Biak bete ziren: 47-36 irabazi zuen Ostadarrek; 44-47 galdu zuen Getxok. Gauzak horrela, ametsa egi bihurtu da. Ostadarrek taldea edukiko du junior nesken Euskal Ligan, 16/17 denboraldian.

Sasoi bikaina

Errendimendu mailan ekin zioten sasoiari junior neskek. Lider amaitu zuten lehenengo fasea, eta kategoriako lauko finala jokatzera sailkatu. Euskal Ligara igota zeuden jada, baina erabakitzeke zegoen maila mantentzeagatik borroka egin edo Euskadiko Txapelketa jokatu ote zuten.

Araskiren kontra neurtu zituzten indarrak herritarrek, eta euren onena eman bazuten ere, ezin izan zuten final handirako sailkatu. Denboraldia amaitu arteko erronka finkatuta zuten jada: Euskal Ligan mantentzeko lehiatuko ziren beste bost talderekin batera –Ordizia, Getxo, San Viator, Atletico San Sebastian eta Araba–.

Hasieran utopia zirudiena helburu bilakatu zen lau jardunaldiren ostean. Jokatuak norengatik guztiak irabazi zituzten urdin-beltzek. “Eus-

kal Liga ez zen gure kategoria, izatez; gozatzea genuen helburu, ez gintuen kezkatzen maila mantentzeak. Lautik lau irabazi eta gero, ordea, salbazioan hasi ginen pentsatzen”, dio Ander Otaegi entrenatzaileak.

Ligaxka hamar partidakoa dela kontuan hartuta, hasiera bikain horrek lasaitasuna eman zion taldeari. Momentu zailak ere igaro dituzte, hala ere: “Bi norgehiagoka garrantzitsu galdu genituen segidan, Getxo eta San Viator taldeen aurka, baina koltxoia geneukan, oso ondo hasi ginelako”, azaltzen du Otaegik.

Bigarren fasea amaitzeko partida bakarra falta da eta Ostadarrek dagoeneko eginak ditu lanak. Horrek ez du esan nahi arratsalde pasa joango direnik, Otaegik esan duenez: “Asteburuan Arabaren kontra jokatu dugu; aurten garaitu ez dugun talde bakarra da”.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 9
Michelin, 11:30ean
 Ostadar SKT - Ordizia KE
Infantilen Ohorezko maila, txapelkunen fasea, 8. jardunaldia.

Herrera, Donostia, 15:30ean
 Sporting de Herrera - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila, 25. jardunaldia.

Karla Lekuona, Oiartzun, 16:30ean
 Oiartzun KE - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila, 28. jardunaldia.

Michelin, 17:30ean
 Ostadar SKT - Texas Lasartearra
Erregionalen 1go maila, kopa, 13. jardunaldia.

Igandea 10
Cesar Benito, Donostia, 13:00etan
 Intxaurdi KE - Ostadar SKT
Emakumezkoen igoera fasea, 13. jard.

PILOTA

Larunbata 9
Michelingo pilotalekua, 16:00etatik aurrera
 Intza KE - Hernani
2. urteko alebinak, Gipuzkoakoa.

Jon Pello Artetxe (Intza KE) - Julen Loitegi (Urnieta)
Seniorrak, Udaberriko lau t'erdia txapelketa, 1go jardunaldia.

Aritz Solano (Intza KE) - Ibargarai (Euskal Giroa)
Seniorrak, Udaberriko lau t'erdia txapelketa, 1go jardunaldia.

SASKIBALOA

Larunbata 9
Divino Maestro, Gasteiz, 13:00etan
 Araba - Ostadar SKT
Junior nesken Euskal Liga, 10. jardunaldia.

Udal Kiroldgia, 18:00etan
 Ostadar SKT - AIB
Senior gizonen 3. probintziala, bigarren fasea, 11. jardunaldia.

Azken Portu, Irun, 18:00etan
 Erroibide Irun - Ostadar SKT
Partizipazioko kadete neskek, bigarren fasea, 13. jardunaldia.

Igandea 10
Benta Berri, Donostia, 10:00etan
 Bera Bera Gros - Ostadar SKT
Errendimenduko kadete neskek, bigarren fasea, 9. jardunaldia.

Udal Kiroldgia, 11:00etan
 Ostadar SKT - Atletico SS
Partizipazioko junior neskek, bigarren fasea, 7. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 9
Pradoviejo, Logroño, 10:30ean
 La Rioja - Lavie ZRT-Beltzak
14 urtez azpikoen Gipuzkoako txapelketa, 3. eta 4. postuak.

Michelin, 15:00etan
 Gure Etxea Beltzak - Bera Bera RT
18 urtez azpikoen liga, 4. jardunaldia.

Michelin, 16:15ean
 Gure Etxea Beltzak - Gernika RT
16 urtez azpikoen liga, bigarren fasea, 4. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 8
Udal Kiroldgia, 20:55ean
 ISU Leihoak - Ataun Troskaeta
Gipuzkoako 1go maila, 23. jardunaldia.

Larunbata 9
Udal Kiroldgia, 9:45ean
 Lasarte Kafe Bar - Laskorain
Jubenilen maila, 19. jardunaldia.

Aldiri kiroldgia, Urretxu, 18:00etan
 Goierri KE - Cecilia Kebab Lasarte
Gipuzkoako 2. maila, 23. jardunaldia.

Igandea 10
Landako kiroldgia, Durango, 12:00etan
 Bilbo FS - Ostadar Antonio
3. Nazionala, 22. jardunaldia.

— Agenda —

Igandea 10, 19:30ean, Manuel Lekuona Kultur etxea



Komikien antiheroia

Helduentzako zinema atalean, 'Deadpool' filma ikusgai. Marvel etxearen komiki batean oinarritutako filma dugu. Zehazki Rob Liefeldek eta Fabian Niciezak sortutako pertsonaia da Deadpool. Wade Winstoni gurasoek ez zioten maitasunik eman, eta, ondorioz, soldadu sartu zen heldu izatean. Sendagileak esango dio oso gaixorik dagoela eta laster hilko dela. Etsita, esperimentu batean hartuko du parte. Botere harri-garriak lortuko ditu eta Deadpool antiheroia sortuko du. Sarrera, 5,50 euro.

Asteazkena 13, 18:00etan

'Islamean aniztasuna' hitzaldia eskainiko du Valentziako Kultura Islamikoko Zentrokokide den Mansur Motak. Ostein, Marokoko produktu tipikoen dastaketa.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 14, 17:00etan

'Ipuiak jo eta musikak kontatu' saioa eskainiko du Badut taldeak.

Osteguna 14, 17:00etan

'Bidegabekeriaren aurkako poesia' Fatima Galia sahararraren eskutik. Ostein, Saharako produktu tipikoen dastaketa.

ARKUPE TABERNA

Osteguna 14, 20:00etan

Javier Pavia kantautore venezuelarraren kontzertua.

SEMBLANTE ANDALUZ

Osteguna 14, 20:30ean

'Guztion Lasarte-Oria sortzen' ekimen multikulturala.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte

Ttakun KEko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza, hala nola, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira Antonio Mercero aretoan. Astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara.

Lasarte-Oria

IV. Musika Astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 8, 20:00etan

Serafin Zubiri artistak 'X una causa justa' lana aurkeztuko du. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 9, 20:00etan

Pablo Sorozabal musikariak konposatutako 'La tabernera del puerto' zarzuelaz gozatu ahal da. Sarrerak Interneten edo txarteldegian, 12 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 10, 12:30etan

Amaren Alabak talde zuberotarrak kontzertua eskainiko du. Sarrera doan.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 10, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Menu-dos heroes' luzemetraia ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.

Multikutur fest

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 11, 18:00etan

'Aniztasuna eta bizipoza' narrazioa Kontu Kantoiren eskutik.

Astelehena 11, 18:00etan

'Biztanle atzerritarrekiko estereotipo eta aurreiritziak' hitzaldia Gorka Moreno EHUKo Gizarte Lanetako irakaslearen eskutik.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 12, 18:00etan

'Txanoak buruan eta ibili munduan' narrazioa Kontu Kantoiren eskutik.

Astearte 12, 18:00etan

SOS Arrazakeria taldeko Tarana Karim eta Silvana Lucianok 'Bizilagunak eta zurrumurrak' hitzaldia eskainiko dute. Ostein, arabiar produktuen dastaketa izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 13, 17:00etan

Errealaren hitzaldia, 'Kirola eta kultura aniztasuna'.

Asteazkena 13, 18:00etan

Ttakun kultur elkartearen eskutik, Ipuin artean ekintza egongo dute etxeko txikiek.

— Herritarren txokoa —

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean apirilaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazaina da eta odol falta dago!

Eskutitza

Celulosas de Hernaniren hartzekodunen lehiaketa

Utzidazue zuen denboraren bost minutu neureganatzen eta CELULOSAS DE HERNANI zenaren arazoaren berri ematen.

Ehun urte baino gehiagoko enpresa hau krisi egoera larrian zegoen 2012 urtetik. Horren ondorioz, lehiaketa prozesu batean sartu zen eta COMINTER TISU, S. L.-ri esker 2015eko urtarilean eta ia hiru urtez geldirik egon ondoren, berriz ere martxan jartzea lortu zen, lehengo langileetako askorekin.

Geldialdi horretan langileok EEEak (Enplegu Erregulazioko Espedientea) izan ditugu, kobratu gabeko nominak eta kontratu guztien etetea. Ia bi urtez langabezian egon gara eta FOGASAREN indemnizazioak kobratu ditugu. Aipatzekoa da epe horretan langileok enpresaren instalazioak zaindu behar izan ditugula eta hala egin izan ezean gaur ez litzatekeela ezer egongo.

Orain hartzekodunen lehiaketaren azken atalean gaude. Lantegian zegoen makineria jabe berriei salduta (hauek

lantegiaren hipotekaren zati bat bere gain hartu zuten eta zorraren %60 kitatu) diru kopuru bat eskuratu da eta diru hori hartzekodunen artean banatu beharko litzateke, horien artean, langileak eta "Aguas de Añarbe".

Aipatutako azken erakunde honek interes publikoaren defentsa bikaina egin du abokatu bufete handi baten aurrean, hartzekodunen lehiaketan soberan gelditu den dirua banatzeko garaian liskarra sortuz eta langileon eskubideekin lehian sartuz. Zehazki 931.841 euro daude jokoan (Añarberkiko benetako zorra 670.000 eurokoa da, baina interesak eta gainerakoak kontuan hartuta hori da egungo kopurua) AGASAK berari dagozkiola uste dugu eta langileok ere gauza bera uste dugu. Egoera honetara iritsita Lehiaketa Administrazioak eta langile eta sindikatuak erakunde horrekin akordio batetara iristen saiatu dira baina ezinezkoa izan da.

Hori ikusita irteerarik gabeko egoera baten aurrean gaude, eta urte

batzuetarako judizializazio posible baten aurrean.

Eskubidea norena den edo zilegitasun handiagoa nork duen baloratzen hasi gabe pentsatzen dugu denontzat hobea litzatekeela akordio batetara iritea baina Añarberko Administrazio Kontseilua ez da iritzi berekoa eta ez du gaia kontseiluan landu nahi izan kideetako askok arazoaren berri izan arren.

Tristea da esatea baina Añarbe (erakunde publikoa) izan da enpresa berria martxan jartzeko oztoporik handiena.

Beste behin ere langileak, FOGASA eta zordun asko izango gara hartzekodunen lehiaketa honetako galtzaileak.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkiet lantegi berria irekitzen lagundu diguten guztiei: langileei, sindikatuari, abokatuei eta aurre erretiratu bati edo besteri.

Eskerrik asko!

Jose Angel Tames
CELULOSAS DE HERNANI zenaren
produktzio arduraduna

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus

Kultur aniztasuna omentzeko festa

Hurrengo astean zehar hamaika ekintza egingo dituzte Multikultur Fest jaialdian

Azken urteetan Sasoeta-Zumaburun ospatu da kulturarteko festa. Aurten urrats garrantzitsua emango dute, Lasarte-Oria osora zabalduko baita, eta Multikultur Fest izena jasoko du. Astelehenetik aurrera ekintza ugari egingo dituzte herri osoan, aniztasuna eta kultura arteko elkarbizitza sustatzeko helburuarekin.

Urtero bezala, Burunzpe guraso elkarteak kultur aniztasunaren astea antolatu du. Hala ere, aurtengoa ez da aurreko urte-takoa bezalakoa izango. Sasoeta-Zumaburu eskolatik Lasarte-Oria osora zabalduko dute jaialdia 2016 honetan.

“Kulturantz den gizarte batean bizi gara”, eta testuinguru horretan hezkuntza ezinbestekoa da, antolatzaileen ustez. “Norberaren esentzia galdu gabe, kultur asko elkarrekin biziko diren eremua lortzea” dute helburu.

Hori lortze bidean, datoren astelehenetik aurrera eta aste osoan zehar, hamaika ekintza antolatu dituzte.

Hitzaldi ugari

Hilaren 11n arratsaldeko 17:30ean emango diote hasiera jaialdiari herriko alkate Jesus Maria Zaballosek eta Hezkuntza kontseilari Cristina Uriartek Manuel Lekuona kultur etxean.

Ondoren, hitzaldi aretoan biztanle atzeritarrekiko estereotipo eta aurreiritziei buruzko hitzaldia emango du Gorka Morenok. Ikuspegiko-immigrazioaren euskal behatokitikozuzendaria eta EHUn gizarte langintzako irakaslea da bera.

Ordu berean, txikiak ‘Aniztasuna bizipoza’ ipuina entzuteko parada edukiko dute Kontukantoi taldearen eskutik. Kontakizuna eta ilustrazioa uztartuko dituzte Beak eta Cesarrek.

Asteartean SOS Arrazakeria taldeko Tarana Karimek eta Silvana Lucianok ‘Bizilagunak eta zurrumurruak’ izeneko hitzaldia eskainiko dute. Aniztasun kulturalari buruzko topiko eta estereotipo negatiboak borrokatuko dituzte, “mobilizaziorako sareak sortuz”.

Ondoren, 19:00etan, elikagai arabiar tipikoen dastaketa egingo dute.

Berriro ere, Kontukantoi taldeko lagunek ipuin kontaketa saioak egingo dituzte hizlariak

berbetan diharduten bitartean, 18:00etatik 19:00etara gutxi gora behera. Oraingo honetan, ‘Txanoak buruan eta ibili munduan’ ipuinarekin liluratuko dituzte umeak.

Asteazkenean ikastetxeetan

Herriko ikastetxeetan zenbait hitzaldi eskainiko dituzte asteazken goizez.

Mendebaldeko Sahararen egoerari buruz arituko dira TEBAL elkarteak kideak 9:00etan Lasarte-Usurbil BHI institutuan eta 11:00etan eta 13:00etan Landaberri institutuan.

Bestalde, ijitu herriari buruzko hitzaldia emango du Kale Dor Kayicok taldeak 9:00etan Sasoeta-Zumaburu ikastetxean.

Realak hasiko ditu arratsaldeko ekintzak. Izan ere, kirola eta kultur aniztasuna izango dituzte hizpide 17:00etan Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko duten hitzaldian.

Ordubete beranduago, islamaren barneko aniztasuna jorratuko dute, Mansur Mota Valentziako Islamiar kultur zentroko imamaren eskutik. Marokoko elikagaiak dastatuko dituzte amaieran.

Txikientzat Ttakun kultur elkarteak ‘Ipuin artean’ kontaketa saioa eta antolatu du 18:00etan. Kontakizunarekin batera tailerra ere egingo dute.

Ekitaldia ostegunean

Ostegun arratsaldea ere ekin-tzaz josia dator. Fatima Galiak bidegabekeriaren kontrako poesia errezitatuko du. Galdakaon bizi den sahararra da eta bertan egin zituen kazetaritza ikasketak. Beste hitzaldietan egin bezala, bertako elikagaiak dastatuko dituzte hitzaldia bukatu ostean.

18:30ean kultur aniztasun ibilbidea hasiko da. ‘Anitzen sarea’ osatzea du helburu eta herriko hainbat elkarte eta



“Nigeria canta” taldea aurten ere taula gainean arituko da larunbat eguerdian.

eragile hartuko dute parte. Manuel Lekuona kultur etxetik abiatu eta Rahma Islamen egoitza, Hogar extremeño, eliza eta Semblante andaluz zeharkatuko dituzte.

Arkupe tabernan, berriz, kontzertua joko du Javier Paiva abeslari venezuelarrak 20:00etan.

Semblante Andaluz elkartearen egoitzan egingo den Guztion Lasarte-Oria sortzen izeneko ekimen multikulturalak emango dio amaiera egunari, 20:30ean.

Gaztetxoei zuzendutako ostirala

Ostiralean 17:00etatik aurrera eta gauera arte ekintza ugari-ekin gozatuko dute herriko gaztetxoek Jaizkibel plazan.

Extremadurako Etxeak txokolatada antolatu du eta umeentzako tailer eta jolasak egingo dira Ttakun kultur elkartearen eta ebanjelari komunitatearen eskutik.

Erritmoarekin jolasean aritzeko aukera ere izango dute, tailer perkusioa egingo baitute.

Jalguneren edota Dinbi Banda Batukadaren emanaldiak etorriko dira ondoren.

Dantzarako denbora ere edukiko dute bertaratutako herritarrek. Izan ere, ekialdeko dantzak egingo dituzte.

19:30ean DJ Aitorrek giro-tuko du plaza, eta 21:00etan abesteko abilezia frogan jarriko dute 2KN okindegiko karaoke lehiaketan parte hartzen dutenek.



TEBAL elkarteak te dastaketa antolatuko du aurten berriro ere

Egun handia

Egitarau mamitsua antolatu dute larunbatari begira. Goizeko ekitaldiak Landaberri institutu aurreko plazan egingo dituzte. Norbere herrialdeko ohiko jantziekin joateko eskaera luzatu dute.

Udal Musika Eskolako ikasleek trikitixa doinuekin alaituko dute eguna. Besteak beste, bidezko salerosketa postua egingo da ADSIS komunitateak ipinita.

Beste herri batzuetako ohi-tura eta eskulanak ikasteko parada edukiko dute. Esaterako, arabiar idazkera eta henna tailerra eta ile apaindegi afrikarera gerturatu ahal izango dira herritarrek. Umeek ere edukiko dute zer egin. Haiei zuzendutako jolas eta tailer bereziak egingo baitira.

Eguerdian Kukukak euskal dantzen erakustaldia emango

du, eta herriko umeek munduko kantak abestuko dituzte. Bazkalurretik abesti nigeriarren emanaldia egingo da.

Semblante Andaluzek pres-tatutako herri paella bazkalduko dute Okendo plazan. Tikitak 5 eurotan erosi ahal izango dira elkartearen bertan. Ondoren, TEBAL elkarteak haima muntatu eta tea dastatuko dute denek.

Zero Sette orkestrak, Boli-viako dantzariak eta Zambra danza taldeak musika eta dantzaz beteko dute Okendo. 18:30ean euskal kantarien doinuak entzun ahal izango dira, eta 19:15ean Bollywoodeko dantzen emanaldia.

22:00etan emango zaio itxiera jaialdiari; Landaberri BHI institutu aurreko plazan Pangea rock taldeak eta Flame Door trap bikoteak emango duten kontzertuekin.

Aniztasuna ardatz duten hitzaldi ugari entzuteko aukera egongo da astelehenetik ostegunera Manuel Lekuona kultur etxean